

INFORMAZIO-TXOSTENA: “EUELEN 40. URTEURRENA”

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean, EUEDEL- Euskadiko Udalen Elkartea dago jasota EAEko udalerriak (251), Trebiñuko enklabeko bi udalerriak, 13 mankomunitate eta bi kuadrilla, baita Nafarroako beste sei bazkide ere, ordezkatzan dituen elkarte gisa.

EUELEn antolamendua eta funtzioak

Elkartearen helburuak: Elkartearen [Estatutuak eta araudia](#)

Egitura organikoa:

- Batzar Orokorra: kide diren udalerri guztiak, alkatea bozeramaile dela.
- Batzorde Eragilea: 15 alkate, elkarteburua eta bi elkarteburuorde barne.
- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde-batzordeak: bakoitzean, hautetsien 9 ordezkari.

Gaur egungo Batzorde Eragilearen osaketa

[2019-2023 aldirako Batzorde eragilea](#) 2019/09/19an Elgoibarren egindako Batzar Orokorrean hautatu zen

Elkarteburua	Gorka Urtaran Agirre	Vitoria-Gasteizko alkatea
Elkarteburuordeak	Nagore Alkorta Elorza	Azpeitiko alkatea
	Jose Antonio Santano Clavero	Irungo Alkatea
Bokalak	Angela Eguia Liñero	Gordexolako alkatea
	Txomin Sagarzazu Ancisar	Hondarribiko alkatea
	Ager Izagirre Loroño	Mungiako alkatea
	Aitziber Oliban Gutierrez	Erandioko alkatea
	Txelo Auzmendi Jimenez	Asparrengo alkatea
	Ane Beitia Arriola	Elgoibarko alkatea
	Mikel Torres Lorenzo	Portugaleteko alkatea
	Saioa Elejabarrieta Amorrortu	Lemoako alkatea
	Iñigo Gaztelu Bilbao	Larrabetzuko alkatea
	Miren Koldobike Olabide Huelga	Legazpiko alkatea
	Xabier Lertxundi Asteasuinzarra	Hernaniko alkatea
	Ander Añibarro Maestre	Laudioko alkatea

Atzoko eta gaurko udalak (1982-2022 urteen arteko konparazioa)

EAEn: **228** udalerri 1982an, eta **251** udalerri 2022an.

Lau hamarkada hauetan, udalen kopurua nabarmen handitu da; **23 udal berri** daude: 1979an 228 ziren, eta, egun, 251. Udalerri berri gehienak Bizkaian (+16) eta Gipuzkoan (+7) sortu ziren, lehen bost legegintzaldietan, 1983 eta 1999 bitartean.

Tokiko hautetsi-karguak 1982an eta 2022an

1982

Guztira, EAEn: **2.429 hautetsi-kargu; 150 hautagaitza** baino gehiagoren ordezkariak.

228 alkate: 4 emakumezko eta 224 gizonezko

- Araba: **419 hautetsi-kargu**, horietatik 22 emakumezkoak (2, alkateak)
- Bizkaia: **1.075 hautetsi-kargu**, horietatik 90 emakumezkoak (1, alkatea)
- Gipuzkoa: **935 hautetsi-kargu**, horietatik 62 emakumezkoak (1, alkatea)

2022

Guztira, EAEn: **2.644 hautetsi-kargu; 5 talde** politiko eta **80 hautagaitza** ordezkatzeko dituzte

251 alkate: 77 emakume, 174 gizon

- Araba: **428 hautetsi-kargu** (182 emakumezko). 51 alkate, eta horietatik 13 emakumezkoak
- Bizkaia: **1.236 hautetsi-kargu** (575 emakumezko). 112 alkate, eta horietatik 35 emakumezkoak
- Gipuzkoa: **980 hautetsi-kargu** (458 emakumezko). 88 alkate, eta horietatik 29 emakumezkoak

40 urte mugarriak jartzen

Euskadiko Udalen Elkarteak 1982ko maiatzaren 8an sortu zuen, Gernikako Batzar Etxean, demokraziako lehen tokiko erakunde oinarriak ezartzeko konpromisoa zuen alkate talde batek. Zuiako alkate eta lehen elkarte buru Iñaki Oregik alboan izan zituen hasierako ibilbide horretan Arabako (Amurrio eta Aramaio), Bizkaiko (Basauri, Gernika eta Igorre) eta Gipuzkoako (Aretxabaleta, Azkoitia eta Arrasate) ordezkariak, bai eta Nafarroakoak ere (Etxarri-Aranatz, Arantza eta Baztan).

Hasieran, 144 udalerri atxiki zitzaizkion elkarteari, eta horiek jarri zuten lehen oinarria, elkarteak beraien ordezkariatzat aitortu zezaten gainerako instituzioen aurrean. Helburu komunak zituzten, eta gaur egun ere indarrean daude: tokiko autonomiaren defentsa eta udalen partaidetza eraginkorra, euskal erakundearen sistema.

Errekonozimendu eta instituzionalizazio hori pixkanaka joan da lortzen, eta modu behin betikoan lortu zen **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea**. Horretan lagundu du, era berean, **EUDELen pluralismoa** burura eraman izanak 2016an Elgoibarren egin zen Batzar Orokorrean. Estatutuak aldatzeko aho bateko akordioaren ondoren egin zen topaketa hartan, konpromisoa hartu zen EAEko udal gobernuetan ordezkatzutako sentsibiltate politiko orok parte har zezan zuzendaritza organoetan.

Europar espiritua eta balioak EUDELen mamia dira sortu zenetik. Euskal udalerriek Europako gainerako elkarteekin aliantzan lan egiten dute EUDEL 1992an CEMRen sartu zenetik. Elkarteak lagundu zuen **Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna** garatzen, eta oraindik ere parte hartzen du Europako Kontseiluak sustatutako europar proiektuetan, esate baterako, Gobernantzako Bikaintasunaren **ELOGE Zigiluan**.

Lau hamarkadako jarduera bizian, EUDELeK demokraziako lehen udalak eraikitzen lagundu du, bai eta zerbitzu publikoak modernizatzen eta politika sozialetan eta ongizate-politiketan aurrera egiten ere. **2016ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeaz** gainera –euskal udalgintzaren helburu historikoa izan da–, Elkarteak bere mugarri nagusietako batzuk gogoratuko ditu: tokiko kargu publikoen lehen estatutua (1990); ingurumen-kudeaketaren hasiera, **Tokiko Agenda 21** direlakoen bidez (1990) eta jasangarritasunaren aldeko Udalsarea sortzea; udalerrietan **euskara** sustatzea eta lehen hitzarmena Euskaltzaindiarekin (2001); *Demokraziaren, askatasunaren eta euskal gizartearen pluraltasunarekiko errespetuaren aldeko* **adierazpen zibikoa** (2002); **Berdinsarea**, Berdintasunaren aldeko udalerrien sarea (2006); **Udalhitz** hitzarmena, zeinak udaletako langileen lan-baldintzak finkatzen dituen (2006); **Gizarte Zerbitzuen** Legea (2008), eta horren garapena, Zorroaren Dekretuaren bitartez; **Puntu Lila** sortzea, indarkeria matxistaren kontra (2015), edo **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan** udalek parte hartzea, 2017az geroztik “hitzarekin eta botoarekin”.

EUDELen etorkizuneko ardatz estrategikoari dagokionez, azpimarratzekoa da Euskadiko **2030 Agendari** egindako euskal udalerrien ekarpena, Eusko Jaurlaritzak garatutakoa eta maila anitzeko gobernantzan oinarritua. Agendan aurrera egite aldera, EUDELeK laguntza ematen du tokiko 15 sustapen-proiektuekin. Halaber, elkarteak berak koordinatuko du garapen hori. Hamabost proiektuak GIHen traktoreak dira toki-mailan, eta garapen sozial eta ekonomikoaren, ingurumen-zaintzaren eta gobernantzaren arloetan lehentasunezkoak diren gaiak babesten dituzte.